

2019

GIPUZKOAKO BASO SEKTOREA INDARTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Baso jabe pribatuentzat informazio liburuxka

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Lurraldearen
Garapenaren
Departamentua



GIPUZKOA

Sarrera

Liburuxka honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako basogintza sektorea indartzeko martxan jarri dituen neurrien berri ematen da.

Banda marroia gaitzaz gain, Gipuzkoako basogintza sektoreak beste zailtasun batzuk ere baditu. Nagusiki: baso jabeen adin altua, errelebo zailtasunak, abandonoa eta baso sailen atomizazioa.

2019. urtera begira Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu duen diru laguntza deialdi honekin, erronka horiei modu tinkoago batean aurre egin nahi die. Baso sektorea jarduera ekonomiko bezela suspertzea, baso osasuna hobetzea, sektorea gaztetzea, baso sailen abandonoa ekiditea, kudeatutako basoak izatea eta baso ustialekuen gutxieneko dimentsioa gehitzea lortu nahi da.

Hori dela eta, aurtengo deialdian neurri berritzaile batzuk jasotzen dira.

Liburuxka honetan zehazten diren neurriak, baso jabe pribatuei zuzendutakoak dira.

Azalpen orokor batzuk

- Eskaerak egiteko epea deialdia argitaratzen denetik bi hilabete artekoa da.
- 2018ko deialdian eskaera egin eta diru faltagatik laguntza gabe geratu ziren baso jabeek, 2019ko deialdian eskaera egiteko aukera izango dute, beti ere, deialdi honek jasotzen dituen baldintzak betetzen badituzte.
- Diru laguntza jasotzen duen baso jabeak, oinarrietan eta diru laguntza espedientean jasotako baldintzak betetzeko eta egindako inbertsioari eusteko konpromisoa hartzen du. Landaketa edo baso berritze lanak aprobetxamendu txanda baino lehen utzi edo suntsitzen badira, inbertsioa ez dela bete ulertuko da eta onuradunak jasotako diru laguntzak eta interesak itzuli beharko ditu.

Eskariak aurkezteko

Eskualdeko nekazal bulegoetako basozainekin jarri harremanetan:

- | | |
|-------------------------------|------------------------------|
| • Azpeitia 943 415 015 | • Ordizi 943 415 100 |
| • Bergara 943 415 068 | • Tolosa 943 415 127 |
| • Elgoibar 943 415 079 | • Zarautz 943 415 147 |
| • Oiartzun 943 415 086 | |

Informazio gehiagorako

943 112 058
mendiakbulegoa@gipuzkoa.eus



<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/mendiak-eremunaturalak/tramiteak/baso-laguntzak>

01.

Baso bideak eraiki eta hobetzea

Baso bide berriak eraiki edo lehengoak hobetzeko emango den oinarritzko diru laguntza portzentajea, pistak zerbitzua emango dien baso sailen azaleraren arabera kalkulatu da; orduan eta baso sail gehiago mesedetu bidearekin, orduan eta diru laguntza portzentaje altuagoa.

Oinarritzko portzentaje hori, honako irizpide hauen arabera gehitu ahal izango da:

- Eskatzailearen adina 55 urte edo gutxiagokoa bada %10 arteko igoera.
- Eskatzaileak nekazal jarduera 0,5 UTA baino haundiagoa badu %10 arteko igoera.
- Baso Kudeaketa Plana egina izateagatik %10 arteko igoera.
- Azken urtean ustialekuko baso azalera gutxienez 0,5 Ha gehitu izanagatik %5 arteko igoera (20 Ha baso baino gutxiago dituen ustialekuentzat bakarrik).

Diruz lagunduko den gehieneko inbertsio lagungarria 60.000€-koa izango da, urteko eta onuradun bakoitzeko. Gutxienez 1.500€-koa izango da.

Eskaria egiterakoan aurrekontua eta teknikariaren proiektua edo proposamen teknikoa aurkeztu behar da.

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehenetasuna hektarea gehieni zerbitzua ematen dien eskaerak izango dute.

Oinarritzko laguntza

%30

%90

artekoa izan daiteke

02.

Baso landaketak egiteko lanak, landarea, babesleak, itxiturak, lehenengo urteko faltak sartzea, sasi garbiketak, ongarritzeak eta 12 urte arteko kimaketak

Baldintza orokorrak:

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da.

Diruz lagunduko den gehienezko inbertsio lagungarria 60.000€-koa izango da, urteko eta onuradun bakoitzeko. Babesleetan, aldiz, 2.000€/ha-koa izango da gehienez ere.

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehenatasuna irizpide hauen arabera ezarriko da:

- Onartutako kudeaketa plana izateagatik (25 puntu).
- Adina; 55 urte edo gutxiago (10 puntu).
- Nekazal jarduera: 0,5 UTA edo gehiago den kasuetan (10 puntu).

Zaintza faltarengatik galtzen diren landaketak ez dira berriz diruz lagunduko baldin eta aurreko diru laguntza itzultzen ez bada.

Landaketak: lurra prestatzea, zulatzea, landarea, hutsarte betetzeak, 12 urte arteko kimaketak, landaketa bera, babesleak eta itxitura berriak.

Landaketa guztiek %50eko oinarritzko diru laguntza portzentajea izan-go dute eta oinarritzko portzentaje hori %90 arte igo daiteke honako irizpide hauen arabera:

- Eskatzailearen adina 55 urte edo gutxiagokoa bada %15 arteko igoera.
- Eskatzaileak nekazal jarduera 0,5 UTA baino haundiagoa badu %10 arteko igoera.
- Baso Kudeaketa Plana egina izateagatik %10 arteko igoera.
- Azken urtean ustialekuko baso azalera gutxienez 0,5 Ha gehitu izanagatik %5 arteko igoera (20 Ha baso baino gutxiago dituen ustialekuentzat bakarrik).

Ez dira lagunduko Eukalipto eta Insignis landaketak.

Sasi garbiketak, itxitura zaharrak, babesleak eta ongarriketak

Lan hauek egiteko diru laguntza portzentajea moduluaren %50ekoa izango da.

Oinarritzko laguntza

%50

%90

artekoa izan daiteke

Gehienezko inbertsio lagungarria

60.000€

deialdiko/onuraduneko

Gutxieneko jarduera azalera

0,5 ha

03.

Bakanketak, sastrakak kentzea, hobetze mozketak, inausketak, hauek utzitako hondakinak kentzea, suebakiak egitea, baso pista ezpondetako sastrakak kentzea eta baso suteak itzaltzeko ur puntuak ezartzea

Lan hauek egiteko oinarrizko diru laguntza portzentajea %50ekoa izango da eta oinarrizko diru laguntza portzentaje hori %90 arte igo daiteke honako irizpide hauen arabera:

- Eskatzailearen adina 55 urte edo gutxiagokoa bada %15 arteko igoera.
- Eskatzaileak nekazal jarduera 0,5 UTA baino haundiagoa badu %10 arteko igoera.
- Baso Kudeaketa Plana egina izateagatik %10 arteko igoera.
- Azken urtean ustialekuko baso azalera gutxienez 0,5 Ha gehitu izanagatik %5 arteko igoera (20 Ha baso baino gutxiago dituen ustialekuentzat bakarrik).

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da. Pistetako sastrakak kentzeko lanen kasuan, diruz lagunduko den gutxieneko luzera 400 metro izango da.

Diruz lagunduko den gehienezko inbertsio lagungarria 30.000€ izango da, urteko eta onuradun bakoitzeko.

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehentasuna irizpide hauen arabera ezarriko da:

- Onartutako kudeaketa plana izateagatik (25 puntu).
- Adina; 55 urte edo gutxiago (10 puntu).
- Nekazal jarduera: 0,5 UTA edo gehiago den kasuetan (10 puntu).

Oinarrizko laguntza

%50

%90

artekoa izan daiteke

Gehienezko inbertsio
lagungarria

30.000€

deialdiko/onuraduneko

Gutxieneko jarduera
azalera

0,5 ha

04.

Suteek, natur hondamendiek eta zorigaitzek eragindako kalteak konpontzeko lanak: matarrasak, bakanketak, entresakak, hobetze mozketak eta mintegietako baso landareak suntsitzea

Baldintza orokorrak

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da. Mintegien kasuan, 100m koadro.

Diruz lagunduko den gehienezko inbertsio lagungarria 60.000€-koa izango da, urteko eta onuradun bakoitzeko.

Laguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da sutea, natura hondamendia edo gaixotasuna izan dela ziurtatzen duen aitortza ofiziala. Eta gutxienez baso potentzialaren %20 kaltetuta egon behar da.

Baita ere onartuko dira mozketak egin ondorengo basoberritze lanak egingo ez diren eskaerak, beti ere beste nekazal erabilera aldatzeko baimendutako lanak burutu badira.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehentasuna irizpide hauen arabera ezarriko da:

- Onartutako kudeaketa plana izateagatik (25 puntu).
- Adina; 55 urte edo gutxiago (10 puntu).
- Nekazal jarduera: 0,5 UTA edo gehiago den kasuetan (10 puntu).

Gaixotutako pinudiak botatzeko laguntza

Diru laguntza eskaera kaltetutako basoa bota eta lursaila birlandatu ondoren egin beharko da.

Gaixotutako pinudiak botatzeko diru laguntzaren kasuan onuradunaren perfilaren arabera bi talde egin dira:

- A TALDEA: 67 urte baino gutxiago duten baso jabeak edo 67 urte baino gehiago izanagatik agraria pentsiodunak direnak.
- B TALDEA: 67 urte edo gehiago dituzten baso jabeak.

A taldekoek B taldekoek baino diru laguntza portzentaje altuagoa jasotzeko aukera izango dute.

Gehienezko inbertsio lagungarria

60.000€

urteko eta onuradun bakoitzeko

Eskaera egiterakoan basoak

birlandatuta egon behar du

» A taldea:

Diru laguntza oinarri finko bat, denentzat berdina ezarri da eta onuradunaren perfilaren arabera igotzeko aukera izango da.

INSIGNISaren ADINA	DIRULAGUNTZA OINARRIA	GEHIGARRIAK edo PLUS *ak	GEHIENEZKO DIRULAGUNTZA
5-12 urte	1.500 €/ha	1.500 €/ha arte	3.000 €/ha
13-16 urte	2.000 €/ha	1.500 €/ha arte	3.000 €/ha
17-30 urte	1.500 €/ha	1.500 €/ha arte	3.000 €/ha

GEHIGARRIAK (Plus-ak)*	PLUS-a
Eskatzailearen adina 55 urte edo gutxiago bada	450€/ha
Nekazal aktibitatea 0,5 UTA edo gehiagokoa bada	450€/ha
Baso Kudeaketa Plana egina izateagatik	450€/ha
Azken urtean ustialekuko baso azalera gutxienez 0,5 ha-tan gehitu izanagatik (20 Ha baso baino gutxiago dituen ustialekuentzat bakarrik)	150€/ha

» B taldea:

Diru laguntza portzentajea taulan azaltzen dena izango da, gehigarriak gabe.

INSIGNISaren ADINA	DIRULAGUNTZA
5-12 urte	750 €/ha
13-16 urte	1.500 €/ha
17-30 urte	1.125 €/ha

*Adibide honetan Insignis landaketan kasua azaldu baldin bada ere, kaltetutako beste edozein espezieek ere diru laguntza jasotzeko aukera izango dute eta kasu bakoitzean dagokion adin tarte eta moduloak aplikatuko dira.

Bakanketek eta entresakek

%50eko diru laguntza izango dute.

Hobetze mozketak

%85eko diru laguntza izango dute.

Baso mintegiak

Mintegietan kaltetutako landareak suntsitzeagatik landareen balioaren %50, gehienez ere 4,25€/m² arte lagunduko da.

05.

Mugaketak egin eta mugarriak jarri

Lan hauek egiteko diru laguntza portzentajea %50ekoa izango da.

Txosten tekniko bat aurkeztu beharko da derrigorrez.

Diruz lagunduko den gehieneko inbertsio lagungarria 30.000€-koa izango da, urteko eta onuradun bakoitzeko eta gutxieneko inbertsioa 250€-koa izango da.

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehentasuna irizpide hauen arabera ezarriko da:

- Onartutako kudeaketa plana izateagatik (25 puntu).
- Adina; 55 urte edo gutxiago (10 puntu).
- Nekazal jarduera: 0,5 UTA edo gehiago den kasuetan (10 puntu).

Laguntza
%50



06.

Baso antolaketa planak egitea, 12 urte baino gehiago dituzten basoetan sastrakak kendu, garbiketak egin, lehen entresakak, hazkundeko adar mozketak, goi inausketak eta ongarritzeak egiteko

Lan hauek egiteko oinarritzko diru laguntza portzentajea %50ekoa izango da eta oinarritzko diru laguntza portzentaje hori %90 arte igo daiteke honako irizpide hauen arabera:

- Eskatzailearen adina 55 urte edo gutxiagokoa bada %15 arteko igoera.
- Eskatzaileak nekazal jarduera 0,5 UTA baino haundiagoa badu %10 arteko igoera
- Baso Kudeaketa Plana egina izateagatik %10 arteko igoera.
- Azken urtean ustialekuko baso azalera gutxienez 0,5 Ha gehitu izanagatik %5 arteko igoera (20 Ha baso baino gutxiago dituen ustialekuentzat bakarrik).

Gutxieneko jarduera azalera 0,5 hektarea izango da. Planak egiteko gutxieneko azalerarik ez dago.

Diruz lagunduko den gehienezko inbertsio lagungarria 60.000 € izango da, deialdi eta onuradun bakoitzeko.

Diru laguntzaren onuraduna ustialekuko titularra izan beharko da.

Eskari guztiei aurre egiteko nahiko diru poltsa ez dagoen kasuan, lehentasuna irizpide hauen arabera ezarriko da:

- Onartutako kudeaketa plana izateagatik (25 puntu).
- Adina; 55 urte edo gutxiago (10 puntu).
- Nekazal jarduera: 0,5 UTA edo gehiago den kasuetan (10 puntu).

Eukalipto landaketetan egindako lanak ez dira lagunduko.

Oinarritzko laguntza

%50

%90

artekoa izan daiteke

Gutxieneko jarduera
azalera

0,5 ha

07.

Baso sailen transmisioak

70 urte baino gehiago dituzten baso jabeek, 55 urte edo gutxiago dituztenei baso sailak transmititzeko laguntza.

Helburua

Neurri honen helburua da baso izaera duten eta indarrean dauden ustialekuei belaunaldi arteko erreleboa bultzatzea.

Zenbatekoak eta portzentajeak

Transmisioaren zenbatekoa 1.000€/ha izango da, eta gehienezko zenbatekoa ustialekuko eta urteko 10.000€-koa izango da. Diru laguntzak ezingo du transmisioa kostua gainditu.

Onuradunak

Diru laguntza jabetza eskuratzen duten ustialekuen titularrek bakarrik jaso ahaliko dute. Horrez gain, eskatzaileak 55 urte edo gutxiago izan beharko ditu eta 0,5 UTA edo gehiagoko ustialeku bat. Jabetza modu partekatuan ere eskuratu ahaliko da, baina diru laguntza bakoitzeko espediente bakarria emango da.

Horrez gain, honako puntu hauek ere kontuan hartu beharko dira:

- Basoa uzten duen baso jabeak 70 urte edo gehiago izan beharko ditu.
- Basoa hartzen duen jabe berriak 55 urte edo gutxiago izan eta gutxienez 0,5 UTAko nekazal ustialeku bateko titularra izan beharko du.
- Diru laguntza, basoa hartzen duenak jasoko du.
- Jabetzan hartutako lur sailak gutxienez bost urtean ezingo dira jabez aldatu.
- Laguntza kobratzeko jabetza erregistroaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- Lursailak Baso Kudeaketa Plan batean barneratu beharko dira.
- Lursaila hutsik badago, bi urteko epean basotu beharko da.

Titularitate berriak subrogatu beharko ditu onuradun pertsonak hartu zituen konpromisoak, betetzearen. Horrela ez bada, onuradunak jasotako diru laguntzak eta dagozkion interesak itzuli beharko ditu.

Lehentasunak

Baso lur gehien transmititzen diren operazioek izango dute lehentasuna.

Laguntza**1.000€/ha****70 urtetik
gorakoek
55 urtetik
beherakoei****Onuraduna**
baso jabe
berria